

2025EAN URDUÑAKO UDALERRIAN KULTURAREN ARLOKO JARDUERAK GARATZEN DITUZTEN ELKARTEEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA

HITZAURREA

Urduñako Udalak, bertako Kultura eta Kirol Arloaren bidez, udalerrian kultura-jardueren garapena bultzatu, sustatu eta suspertu behar dela badakienez, arauketa honen bidez zehaztu nahi du dirulaguntzak konkurrentzia lehiakorraren araubidepean emateko prozedura-esparrua, ustezko onuradunak jarduera publikoak garatzen dituzten Urduñako kultura-elkarteak direla kontuan hartuta, betiere, bertan gure udalerriko biztanle guztiek parte hartzerik badute.

Hori dela eta, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, lege horri buruzko Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan eta Urduñako Udaleko Dirulaguntzak Emateko Oinarri Orokorrak arautzen dituen Ordenantzan xedatutakoaren arabera, deialdi hau argitaratzen da, 2025. urtean kulturaren arloko jardueren antolakuntzarako dirulaguntzak emateko asmoz.

Deialdi hau Udaltzat 2024ko abenduaren 19an egindako ohiko bileran onartutako Urduñako Udaleko Dirulaguntzen indarreko Plan Estrategikoan (2025-2027) agertzen da.

Era berean, deialdi hau Kultura, Kirol eta Gazteria Arloko *Urduñako kultura-elkarteentzako dirulaguntza* izeneko 2. lerroaren barruan dago kokatuta, eta Urduñako Udaleko Dirulaguntzak Emateko Oinarri Orokorrak arautzen dituen Ordenantza horren 2. artikuluan azaltzen da.

Honako hauexek dira helburuak:

- Herriarren kultura-dinamizazioa xede duten ekimenak sustatzea, ekimena zein partaidetza suspertzeko, bizi-kalitatea hobetzeko eta garapen bateratua bultzatzeko.
- Oro har herritarrentzat diren jarduerak egitea, tokian-tokian lehendik zeuden baliabideak aberasteko eta handitzeko, batez ere gazteen zein etorkinen partaidetza sustatzeko eta haien jarduketa nahiz partaidetza soziala lortzeko.
- Egindako jarduerak gainerako kultura-elkarrekin eta beste edozein arlotako beste batzuekin koordinatzea, udal-eskaintza hobetu ahal izateko.
- Partaidetzarako atondutako eremuetan eta organoetan bete-betean parte hartzea, udalerriari aurrera egiten laguntzeko.
- Kultura-elkarteen autonomia sustatzea.
- Euskararen inguruko konpromisoa sustatzea eta suspertzea, jardueretan eta argitalpenetan edo agirietan ohiko komunikazio-hizkuntza izan dadin.
- Emakumeek kulturaren arloan duten partaidetza indartzea, gizonen eta emakumeen berdintasunerako prozesuko ezinbesteko ardatza da-eta.

1. ARTIKULUA.- DEIALDIAREN HELBURUA

Deialdi honek gure udalerriko biztanle guztiek parte hartzeko asmoz irabazi-asmorik gabeko elkarteek antolatutako kultura-arloko proiektuak eta ekitaldiak garatzeko dirulaguntzak ematea dauka helburu. Dena dela, Urduñako Udala ez da inoiz ere jarduera horien antolatzailea izango. Aurrean azaldutakoa dela eta, Urduñako Udala diruz lagundutako jardueraren ohiko edo ezohiko garapenaren ondorioz sortu daitekeen erantzukizun zibileko edonolako ondare-erreklamaziotik egongo da salbuetsita.

Dirulaguntzaren helburu diren kultura-proiektuak irekiak izan beharko dira, Urduñako udalerrian bertan garatu eta betearazi beharko dira eta bertako biztanle guztientzat izan beharko dira. Gainera, esperientzia berriak eskaini ahal izango dituzte, edo, bestela, lehendik zeuden programei, ekitaldiei eta jaialdiei eman ahal izango diete jarraipena.

Honako hauexek deialdi honen ezarpen-eremutik kanpo geratuko dira:

- Taldeko edo elkarteko kideentzat baino ez diren jarduerak.
- Jai-arlokoa baino ez den edozein jarduera.
- Ikasketa-bidaiak.
- Elkartearen HELBURUAREKIN zuzenean bat ez datozen bidaiak.
- Ikastetxeek eskola-ordutegian ikastetxeko programazio orokorraren barruan antolatutako jarduera osagarriak.
- 600 € baino gutxiagoko aurrekontu araztua duten proiektuak.
- 15 parte-hartzaileentzat baino gutxiagorentzat antolatutako proiektuak (parte-hartzaile aktiboak eta pasiboak kontuan hartuta).
- Udal honek zerbitzugintzarako kontratuaren bidez kontratatu dituen jarduerak.
- Dirulaguntzen beste arlo edo lerro batzuetan diruz laguntzen diren edo dirulaguntza zuzena jasotzen duten proiektuak.
- Deialdi honen 1. artikulua 1. idatz-zatian zehaztutako jarduketara arloen barruan ez dauden jarduerak.

Deialdi honek elkarte eskatzaileen ekintza babestea eta osatzea izango du helburu eta inoiz ez jardueren betearazpenaren ondorioz sortutako gastu guztiak finantzatzea.

Dirulaguntza-eskabidearen helburu diren proiektuak 2025eko ekitaldian bertan garatu beharko dira (urtariletik abendura arte).

Deialdi honetan, jardueraren %50erainoko ehunekoan azpikontratatzeko aukera baimenduko da, Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 29. artikuluan xedatutakoaren arabera.

2. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

2025. urtean kulturaren arloko proiektuak eta ekitaldiak garatzeko dirulaguntzak konkurrentzia lehiakorraren araubidearen bitartez emango dira.

3. ARTIKULUA.- ELKARTE ONURADUNAK

Urduñako kultura-elkarteek dirulaguntza eskatu ahal izango dute, betiere, haien helbide soziala Urduñan bertan badago, kulturaren sustapenerako proiektuak egin nahi badituzte, Eusko Jaurlaritzako Elkartearen Erregistroan inskribatuta badaude eta, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen, euren estatutuak zein IFK Urduñako Udalean erregistratu badituzte.



Erakunde onuradunek zerga-arloko, Gizarte Segurantzarekiko, Aldundiarekiko eta Urduñako Udalarekiko betebeharrak egunean eduki beharko dituzte. Eskakizun hori eskabidea aurkezteko orduan bete beharko da, eta indarrean jarraitu beharko du dirulaguntzaren prozesu osoak dirauen bitartean (emakida, betebeharraren aitortza eta ordainketa).

Kasuan kasuko zehapenean adierazitako epealdian, deialdi honetatik kanpo geratuko dira sexuagatiko bereizkeriaren ondorioz zehapen administratibo edo penala jaso duten pertsona juridikoak, baita Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Euskal Legearen arabera debeku horren bidez zigortutakoak ere, edo haien helburuak, onarpen-sistema, eskuratzeko aukera edo partaidetza, jardunbidea, ibilbidea edo jarduketa emakumeen eta gizonen tratua eta aukera berdintasunaren printzipioaren aurkakoak direla egiaztatzen denean.

4. ARTIKULUA.- BALIABIDE EKONOMIKOAK

Deialdi honen babespean ematen diren dirulaguntzak Kultura eta Kirol Sailaren 2025eko ekitaldiko aurrekontuko 04 3300 48107. partidako aurrekontu-kredituan egotziko dira, eta gehieneko zuzkidura 22.000 eurokoa izango da.

5. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZA ESKATZEKO EPEAK ETA MODUA

Eskabideak aurkezteko epea oinarri arautzaileak eta deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu osteko hurrengo egunean hasiko da, eta hurrengo 30 egun naturaletan egongo da indarrean.

Eskabideak aipatutako epetik kanpo aurkezten badira, eskabide horiek ezetsi eta beste izapiderik gabe artxibatuko dira.

Eskabidea Urduñako Udaleko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da (www.urduna.com / Izapideak).

Eskabide hori udalaren webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera izan beharko da.

Eskabide bakoitzarekin batera, deialdi honetan eskatutako agiriak "pdf" formatuan aurkeztu beharko dira behar bezala sinatuta.

Era berean, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan legearen arabera aurreikusitako gainerako lekuetan ere aurkeztu ahal izango da eskabidea.

Eskabidea behar bezala aurkeztuko ez balitz edo daturen bat edo aipatutako agiriren bat falta izango balitz, pertsona edo erakunde eskatzaileari eskatuko zaio gabezia horiek 10 laneguneko epean zuzentzeko. Gainera, jakinarazi ere egingo zaio hori egin ezean, eskabidea ezetsiko dela Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan adierazitakoaren arabera ebazpena eman ondoren.

Kasu zehatz bakoitza kontuan hartuta, Urduñako Udalak eskatzaileari eskatu ahal izango dio bere ustez beharrezkoa den beste edozein agiri osagarri. Hala badagokio, eskatzaileak derrigorrean aurkeztu beharko du, bere eskabidea izapidetzea nahi badu.

Eskatzen zaionean, eskatzaileak agiriak zehaztutako epean aurkeztuko ez balitu, bere eskabidea ezetsi eta artxibatu egingo da, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren.

Dirulaguntza eskatzean, eskatzaileak behar besteko konpromisoa hartuko du, dirulaguntza-eskaeraren helburu den programa edo jarduera garatzeko.

Eskatzaileak bere ustez beharrezkoak diren informazio eta agiri guztiak aurkeztu beharko ditu, balioespenerako aurkeztutako datuak zuzenak direla ziurtatu ahal izateko.

Zalantzarik egonez gero edo, agiriak falta direlako, irizpideen balioespen objektiboa egiteko aukerarik egon ezean, ez da punturik emango.

Edozein dirulaguntza-eskabide izapidetu gabe artxibatuko da, erakunde onuradunak aurreko urteetakoak erabat justifikatuta ez baditu.

6. ARTIKULUA.- ESKABIDEAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

Jarduerari buruzko memoriarekin batera, derrigorrezkoa izango da berariazko oinarri hauetan zehaztutako eranskinak aurkeztea.

6.1.- I. ERANSKINA.- Eskabide-orri orokorra, behar bezala betetako inprimaki normalizatuan. Eskabide-orria sinatzean, adierazi egin beharko da eskatzailea ez dagoela inolako debekupean, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan edo horrekin bat datorren beste edozein lege-xedapenetan aurreikusitako onuradun-izaera erdiesteko, eta eskatutako dirulaguntzaren bidez eta eskatu ditzakeen beste batzuen bidez larregizko inolako finantzaketarik lortzen ez duela.

6.2.- Aurkeztutako jardueraren edo jardueren PROIEKTU XEHATUA. Gutxienez, honako haxe adierazi beharko da bertan:

- Dirulaguntzara aurkeztu den proiektuaren azalpena. Bertan, proiektuaren memoria argigarria agertuko da, jarduerak zein diren zehaztuko da eta osagai dituen jarduera guztien aurrekontu xehatua erantsiko da. Gainera, proiektuak udalerriko kultura-testuinguruan duen garrantzia azalduko da (proiektuaren edizioak eta udalerriko kultura-tradizioan duen inplikazioa).
- Zehaztutako helburuak.
- Non eta noiz egingo diren.

Era berean, 7. puntuko B) a.- *Genero-ikuspegia* idatz-zatian xedatutakoaren arabera balioesteko asmoz, elkarte eskatzaileko Zuzendaritza Batzordeko kideen kopurua zein den adierazi beharko da sexuaren arabera banatuta. Horrez gain, banaka zehaztu beharko da zein den elkarteburuaren generoa.

Deialdira aurkeztu den memorian berariaz azaltzen den informazioa baino ez da balioetsiko. Beraz, ez da balioetsiko sail deialdigilearentzat agerikoa eta erabat ezauna dela dirudien arren aurkeztu diren agirien artean agertzen ez den informaziorik.

6.3.- II. ERANSKINEKO FITXA.- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK:

- Dirulaguntza-eskabidean adierazitako informazio guztia egiazkoa dela.
- Elkarrekin behar besteko konpromisoa hartzen duela, dirulaguntza-eskabidearen helburu den programa edo jarduera garatzeko.

- Beste edozein administrazioak edo erakunde pribatuk emandako edo haiei eskatutako laguntzak aurkeztutako proiektuan aipatzen direnak direla.
- Eginkizunak betetzean adingabeekin ohiko harremana izango duten langile guztiek sexu-izaerako delituengatik ziurtagiri negatiboa dutela.

6.4.- III. ERANSKINEKO FITXA.- Garapenerako aurreikusitako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontu xehatua, beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskabidearen helburu diren jarduera horietarako laguntzak eskatu dizkieten edo laguntzak eman dizkieten adierazita, baita zenbatekoak zein diren ere.

6.5.- IV. ERANSKINEKO FITXA.- Hirugarrenari alta emateko inprimakia, behar bezala beteta, laguntza lehen aldiz eskatzen bada edo zenbatekoa kontu korrante berri batean ordaintzeko eskatzen bada.

6.6.- Premien zerrenda zehatza: beharrezkoa den udal-azpiegitura (hesiak, taulak, astoak...), konexio elektrikoak, eszenatokiak..., betiere, jardueraren garapenerako behar badituzte. Edonola ere, berariazko eskabidea egin beharko dute horretarako.

Eskabidearen aurretiko urtean Urduñako Udalak emandako antzeko dirulaguntza jaso duten erakundeek edo eskatzaileek ez dituzte aldatu ez diren agiriak berrir aurkeztu beharko, nahiz eta euren eskabidean inguruabar hori berariaz aipatu beharko duten.

Norberaren Datuen Babesari eta Eskubide Digitalen Bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzeko asmoz, eskatzaileei jakinarazten zaie aipatutako agirien osagai moduan aurkeztutako datuak oinarri hauek arautzen duten deialdiko urteko dirulaguntza emateko prozeduran baino ez direla erabiliko.

7. ARTIKULUA.- BALIOESPENERAKO IRIZPIDEAK

Eskabideak ebazteko orduan, balioespenerako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- A. Programa balioesteko irizpideak.
- B. Erakunde eskatzailea balioesteko irizpideak.

Honako hauexek dira balioespenerako irizpideak:

A.- Programa balioesteko irizpideak (80 punturaino):

a.- Gizarte eta kultura arloko interesa eta udalerrian duen eragina: 18 punturaino

a.1) Jardueraren helburu diren biztanle pasiboak (jardueran bertan bete-betean parte hartu ez arren, nola edo hala onuradunak diren edo jardueraren eraginpean dauden biztanleak: ikus-entzuleak, parte-hartzaileen senideak eta herritarrak, oro har): 6 punturaino

- 1 - 30: 2 puntu
- 31 - 100: 4 puntu
- 101 baino gehiago: 6 puntu

a.2) Jarduerako parte-hartzaile aktiboen kopurua (jardueran bertan zuzenean parte hartzen dutenak, hau da, garapenean bete-betean esku hartzen dutenak): 6 punturaino

- 15 - 50: 2 puntu



- 51 - 100: 4 puntu
- 101 baino gehiago: 6 puntu

a.3) Erroketa eta jarraitasuna (egonkortasuna eta udalerrian duen integrazio-maila urteen joan-etorrian): 3 punturaino

a.4) Udalerriko gizarte eta kultura arloko interesen arabera egokitzapena: 3 punturaino

b.- Jarduera betearazteko ahalegin finantzarioa: beste dirulaguntza batzuk, kuotak, zozketak eta txosnak: 7 punturaino

- Aurrekontuaren %16 - %40: 2 puntu
- Aurrekontuaren %41 - %60: 5 puntu
- %60 baino gehiago: 7 puntu

c.- Proposamen teknikoa: 37 punturaino

c.1) Bete beharreko helburuen azalpena eta jardueren plangintza, jarduerok betearazteko egutegia eta lekua barne: 9 punturaino

c.2) Aurkeztutako programazioan bete beharreko jardueri buruzko txosten ekonomikoa (*diru-sarreraren eta gastuen kontu xehatua*): 9 punturaino

c.3) Euskararen erabileraren sustapena jardueran bertan, hizkuntza-normalkuntzaren arloko indarreko legeriaren arabera eskatu daitezkeen eskakizunetatik haratago: 7 punturaino:

- Helduentzako jarduerak, betiere, ildo nagusia eta dinamizazioa erabat elebidunak badira eta euskararen erabilera sarrera labur batera edo informazio nabarmengarrienera mugatzen ez bada: 5 punturaino
- Familientzako edota gazteentzako jarduerak, betiere, oso-osorik euskaraz dinamizatuta badaude: 5 punturaino

c.4) Gizonen eta emakumeen agerpen orekatua, proiektua betearazteko orduan: 4 punturaino

c.5) Proiektua idazteko orduan, genero-ikuspegia kontuan hartzen denean edota hizkuntza barneratzailea erabiltzen denean: 3 punturaino

c.6) Gazteen partaidetzaren sustapena: hori lortzeko ekintzak: 5 punturaino

d.- Gastu administratiboak: honako hauexen ondorioz sortutako gastu justifikagarriak: telefonoaren fakturak, posta, bidaiak, programa informatikoak, bulegoko materiala...: 7 punturaino

- 500 € edo gutxiago: 1 puntu
- 501 € - 1.000 €: 3 puntu
- 1.001 € - 1.500 €: 5 puntu
- 1.501 € edo gehiago: 7 puntu



e.- Jardueraren aurrekontua: ez da udalak ordaindu duen jarduerarik kontuan hartuko. Aurrekontuan adierazitakoaren %100 justifikatu beharko da: 11 punturaino

- 2.000 € edo gutxiago: 4 puntu
- 2.001 € - 4.000 €: 7 puntu
- 4.001 € - 7.000 €: 9 puntu
- 7.001 € edo gehiago: 11 puntu

B) Erakunde eskatzailea balioesteko irizpideak (20 punturaino):

a.- Genero-ikuspegia: 2 punturaino

- Emakumeek elkartean duten agerpena: 1 puntu
- Berdintasunerako udal-kanpainetan parte hartzea eta bertan jarduerak egitea (esate baterako, martxoaren 8an, azaroaren 25ean eta beste data batzuetan): 0,5 puntu
- Karteletan, mezuetan..., irudi barneratzaileak erabiltzea: 0,5 puntu

b.- Hizkuntza-normalkuntza: 4 punturaino

Ohar argigarria: kartelak, idazkunak, iragarkiak, oharrak eta era bateko eta besteko komunikazioak ele bitan egitea eta argitaratzea ez da puntuagarria izango, hizkuntza-normalkuntzaren arloko indarreko legeriaren arabera eskatu daitekeen eskakizuna delako. Deialdi honetako 10. artikulua ikusi.

- Euskararen ohiko erabilera egiaztatua elkaratearen kanpoko komunikazio idatzian, honako euskarri hauetan: 3 punturaino
 - Kideei WhatsApp bidez bidalitako mezuak: 2 puntu
 - Kideei bidalitako mezu elektronikoak eta gutunak: 2 puntu
 - Institutio laguntzaileei bidalitako mezu elektronikoak eta gutunak: 1 puntu
- Euskararen ohiko erabilera egiaztatua elkaratearen barruko komunikazio idatzian: aktak, seinaleak, egoitzako paperak...: 1,5 puntu
- Euskara Batzordeak antolatutako jardueretarako eta kanpainetarako lankidetzak aktiboa (Euskararen Eguna, Euskaraldia, Korrika...): 1,5 puntu lankidetzako, 3 punturaino
- Euskararen Semaforoa izeneko sistemaren ezarpena elkarteko jardueren publizitatean, proposatutako jardueran euskararen erabilerarako aukerak zehaztu ahal izateko: 1,5 punturaino

c.- Teknologia berrien erabilera: 2 punturaino:

- Sare sozialak, webguneak edo plataforma digitalak erabiltzea, taldearen jardueren berri emateko: 2 puntu

d.- Dirulaguntzaren helburu den ekitaldian, Urduñako Udaleko zenbait sailek sustatutako batzordeetan, ikastaroetan, foroetan... ohikotasunez eta bete-betean parte hartzea (zeinetan zehaztu. Zehazten ez bada, ez da balioetsiko): 3 punturaino

- %25 eta %50 arteko partaidetza: 0,5 puntu



- %51 eta %75 arteko partaidetza: 2 puntu
- %75etik gorako partaidetza: 3 puntu

e.- Urduñako Udaleko Kultura eta Kirol Arloak antolatutako jardueretarako edo udalerriko kultura-elkarteek antolatzen dituzten jardueretarako lankidetzak (zeinetan zehaztu, Zehazten ez bada, ez da balioetsiko): 4 punturaino

- Jarduera edo ekitaldi bateko partaidetza: 2 puntu
- Bi jarduera edo ekitaldiko partaidetza: 3 puntu
- Hiru jarduera edo ekitaldiko partaidetza: 4 puntu

f.- Boluntarioen lanaren sustapena (zenbat zehaztu): 3 punturaino

- Erakundeak 10 boluntario baino gutxiago baditu: 1 puntu
- Erakundeak 20 boluntario baino gutxiago baditu: 2 puntu
- Erakundeak 20 boluntario baino gehiago baditu: 3 puntu

g.- Erakundeak Elkarleen Udal Erregistroan duen antzinatasuna eta elkarketa aktiboa (urtea zehaztu): 2 punturaino

- 5 urtetik beherako antzinatasuna: 2 puntu
- 5 urtetik gorako antzinatasuna: 1 puntu

8. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Ezarri beharreko araubidea konkurrentzia lehiakorrena izango da, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean zehaztutako baldintzen arabera. Beraz, dirulaguntzak emateko orduan, aurkeztutako eskabideak erkatuko dira, oinarri hauetan zehaztutako irizpideen arabera haien arteko lehentasuna ezarri ahal izateko. Hori dela eta, balioespen handiena lortu dutenei emango zaie dirulaguntza, eta ez da inolaz ere deialdian zehaztutako aurrekontu-zuzkiduraren zenbatekoa gaitutuko.

Deialdi honetan azaldutako dirulaguntzak emateko organo izapidegilea Kultura eta Kirol Arloa izango da, eta honako hauexek osatuko dute: Kultura eta Kirol Arloko teknikaria edo organo esleipengileak beharrezkotzat jotako beste langile batzuk.

Eskabideak aztertutakoan, txosten teknikoak idatziko da, eta osteko ebazpen-proposamenaren oinarria izango da.

Aurkeztutako agiritan edozein faltsutasun antzematen bada, zuzenean ukatuko da dirulaguntza.

Kultura eta Kirol Arloko zinegotziak txosten hori onartu beharko du.

Ebazpenerako organo eskuduna Alkatetza izango da, aurreko paragrafoan aipatutako organo izapidegileak proposatuta. Ebazpenean, honako hauxe azaldu beharko da gutxienez: onuradunen zerrenda, zenbatekoak eta, ukorik egonez gero, ukapen horien behar besteko arrazoi egokiak.

Eskabideak ebazteko prozeduran, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, lege hori garatzen duen araudian eta horrekin bat datozen beste legez xedapen batzuetan araututakoa hartuko da kontuan.



Irizpide horiek ezartzean, ustezko 100 puntuetatik gutxienez 45 puntu lortzen dituzten proiektuak hautatuko dira.

Aurkeztutako proiektuek honako hauxe lortu beharko dute:

- **Gutxienez, 35 puntu**, “A) Programa balioesteko irizpideak” irizpidean.
- **Gutxienez, 10 puntu**, “B) Erakunde eskatzailea balioesteko irizpideak” irizpidean.

Epaimahai Kalifikatzailearen iritziz atal bakoitzean eskatutako gutxieneko puntuazioa (A ataleko 35 + B ataleko 10) lortzen ez duten proiektuak ezetsi egingo dira.

Ebazpena emateko gehieneko epea 6 hilekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik hasita. Epe hori igarotakoan berariazko ebazpenik ez balego, dirulaguntza-eskabidea ezetsi egin dela ulertuko da, Administrazio Publikoetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean xedatutakoaren ondorioetarako.

Bide administratiboari amaiera ematen dion ebazpenaren aurkako aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Alkatetzan, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasi eta hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzi Epaitegian, modu berean zenbatutako bi hileko epean.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera, emakidari buruzko ebazpena eman baino lehen, erakunde onuradunek zerga-arloko, Gizarte Segurantzarekiko, Aldundiarekiko eta Urduñako Udalarekiko betebeharrak egunean dituztela egiaztatu beharko dute. Eskakizun hori eskabidea aurkezteko orduan bete beharko da, eta indarrean jarraitu beharko du dirulaguntzaren prozesu osoak dirauen bitartean (emakida, betebeharraren aitortza eta ordainketa).

9. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA

Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa ez da diruz lagundutako aurrekontuaren %60 baino handiagoa izango proiektuko, berrikusitakoan eta kasuan kasuko doikuntzak egindakoan. Gainera, aurkeztutako proiektuko diruz lagundutako zenbatekoa ez da inolaz ere 4.500 € baino handiagoa izango.

Dirulaguntza guztiak ebatzitakoan, 2025eko aurrekontuan erabilgarri dagoen kreditua nahikoa izango ez balitz, beheranzko hainbanaketa ezarriko da dirulaguntza jasoko duten eskabide guztietan.

Eskabide guztiak ebatzitakoan 2025eko aurrekontuan eskuragarri dagoen kreditua erabiliko ez balitz, soberako zenbatekoagatik gastuaren baimena ezeztatzeko izapideak egingo lirateke.

Aurreko paragrafoan aipatutako aurrekontua onartzeko orduan, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Diruz lagundu daitezkeen gastuak izango dira inolako zalantzarik gabe jardueraren edo proiektuaren garapenerako beharrezkoak direnean. Diruz lagundu daitezkeen gastuak 2025ean egin beharko dira ezinbestean, eta gastu horien kostua ezingo da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Dirulaguntza eskatzen duen erakundearen izenean dauden fakturen bidez egiaztatutako eragiketa ekonomikoa sorrarazten dutenak baino ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko. Beraz, ez dira beste erakunde batzuek zuzenean ordainduko dituztenak onartuko.

b) Ezin izango da BEZ kengarriaren zenbatekoa diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartu, erakunde eskatzaileak zerga horren aitorpena egin behar duenean.

c) Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko erakunde eskatzailearen egitura kudeatzeko gastuak (lokalak mantentzeko gastuak, langile-gastuak...), ezta txosnen instalazioaren edo hirugarrenei egindako dohaintza ekonomikoen edo gauzazko dohaintzen ondorioz sortutako gastuak ere.

Erakunde eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan aurreko idatz-zatian xedatutakoaren arabera diruz lagundu ez daitezkeen gastuak agertuko balira, ez dira zenbatuko diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontua zehazteko orduan.

10. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZEN ORDAINKETA ETA BATERAGARRITASUNA

Ematen diren dirulaguntzak bi igorpenen bidez ordainduko dira:

1. %75, dirulaguntza emateko orduan.
2. Gainerako %25a, diruz lagundutako jarduketa benetan gauzatu dela egiaztatutakoan eta jasotako dirulaguntza behar bezala justifikatutakoan.

Ez da dirulaguntza ordainduko, erakunde onuradunak udal honek emandako beste dirulaguntzaren bat justifikatu gabe badauka edo erakundeak aurreko dirulaguntzaren bat itzuli ez badu, halaxe eskatu zaionean.

Era berean, ezin izango da dirulaguntza ordaindu, harik eta onuradunak zerga-arloko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean eduki arte.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarriak izango dira nazio-mailako, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuen lorpenarekin. Edonola ere, helburu bererako beste dirulaguntza bat edo batzuk jasoz gero, baliteke emandako dirulaguntza berregokitu behar izatea, larregizko finantzaketarik egon ez dadin.

Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateraezinak izango dira udaleko bertako beste sail edo zerbitzu batzuek helburu, programa edo jarduera bererako eman dezaketen beste edozein laguntza ekonomiko edo dirulaguntzarekin, betiere, alderdiek elkarrekin berariaz baimendu ez badituzte.

11. ARTIKULUA.- ERAKUNDE ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Deialdi honetan araututako dirulaguntzetako elkarte onuradunek honako hauxe bete beharko dute derrigorrean:

- a) Dirulaguntzaren helburu den jarduera eskabidean bertan adierazitako baldintza berberetan garatzea. Horretarako, Urduñako Udalari jarduera noiz hasi eta amaituko den jakinaraztea eta, aurrerapen nahikoaz, udalari programazioaren berri ematea, bere komunikabideetan argitaratu dezan.

- b) Emandako justifikazioa garaiz eta forman justifikatzea, oinarri hauetan zehaztutako baldintzak kontuan hartuta.
- c) Ez diruz lagundutako programan edo proiektuan, ez komunikaziorako euskarrietan, honako hauxe ez agertzea (ez aurretiazko zabalkundean ez garatu bitartean):
- Oinarrizko edozein eskubideren urraketa sorrarazten duten egintzak edo irudiak, gizaki guztien eskubideak zein askatasunak errespetatu ahal izateko; eta, zehatz-mehatz, ospe-galera, gutxiespena edo laidoa sorrarazten duten jendaurreko egintzak edo irudiak.
 - Udal-planen aurka doazen egintzak edo irudiak.
 - Animalien tratatu txarrekin lotutako egintzak edo irudiak.
 - Indarreko araudiaren aurka joan daitezkeen egintzak edo irudiak.
 - Alderdi politikoen sinboloak.
- d) Aurreikusitako proiektua edo programa egitean sortu daitezkeen erantzukizun guztiak euren gain hartzea.
- e) Udalak emandako dirulaguntzaren ezarpenaren egiaztapenerako eta jarraipenerako egokitzat jotzen dituen jarduketa guztiei men egitea.
- f) **Publizitatean** eta komunikazio-egintzetan, proiektua, programa edo jarduera Urduñako Udalaren laguntzaz egiten dela argi eta garbi adieraztea. Horretarako, Kultura eta Kirol Arloari programaren kartela bidali beharko zaio inprimatu baino lehen. Urduñako Udalaren irudi korporatiboan zehaztutako elementuak erabili beharko dira derrigorrean.
- g) Proiektuarekin, programarekin edo jarduerarekin lotutako publizitatean eta komunikazioan, **hizkuntzaren eta irudiaren erabilera sexistarik** ez egitea. Material, irudi eta agiri guztietan, ez da inolaz ere hizkuntzaren erabilera sexistarik egingo, ez da emakumeen bereizkeriazko inolako irudirik agertuko eta honako balio hauek sustatu beharko dira: berdintasuna, zereginen aniztasuna eta emakumeen zein gizonen erantzunkidetasuna. Eskabiderako eta justifikaziorako memorietan, sexuen arabera banatutako partaidetza-datuak azaldu beharko dira.
- h) Emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balioespena parekoak direla bermatzea eta berdintasunaren, agerpen orekatuaren, dibertsitatearen, erantzunkidetasunaren, zereginen aniztasunaren eta genero-nortasunen balioetan oinarritutako irudia sustatzea informazio idatzian, ahozkoan, ikonografikoan, publizitateko ekintzetan, barruko nahiz kanpoko komunikazioan, formalean nahiz informalean, eta proiektua edo jarduera betearaztean sortutako edo horrekin lotutako materialean.
- i) Proiektuarekin, programarekin edo jarduerarekin lotutako publizitatean eta komunikazioan, **hizkuntza-normalkuntzako irizpideak** kontuan hartzea. Hizkuntza-normalkuntzari buruzko indarreko araudia betetzeko asmoz, honako hizkuntza-irizpide hauek ezarriko dira.
- Jardueraren inguruan argitaratzen diren idazkun, iragarki, ohar eta komunikazio guztiak bi hizkuntza ofizialetan eman beharko dira jakitera, eta modu berean ere jokatu da propaganda, diptiko, kartel... guztietan.
- Halaber, euskarazko testuaren agerikotasuna eta irakurgarritasuna sustatuko dira testuaren tamainaren zein kolorearen bidez, eta, horrez gain, lehentasunezko lekuan ere jarriko da euskarazko testua. Hau da, bi hizkuntzentzako lekua modu bertikalean banatuko balitz, euskarazko bertsioa goiko aldean jarriko litzateke; eta, horizontalean badoa, ezkerraldean. Modu berean, bi bertsioetan argitaratu beharreko edukiak orrialde bat baino gehiago betetzen badu, lehenengo orrialdean joango da euskarazko bertsioa.

Irizpide horiek ezartzen laguntzeko asmoz, Urduñako Udalak hizkuntza-aholkularitzarako eta itzulpenarako doako zerbitzua jarriko du eskatzen duten elkarteen esku.

Era berean, megafonia bidez jakitera emandako mezuak ere bi hizkuntza ofizialetan igorri beharko dira.

Kasuan kasuko sailak betebeharrak hori bete egiten dela egiaztatu dezaten, elkarteek dirulaguntzaren justifikazioarekin batera aurkeztu beharko dute diruz lagundutako programa/jarduera garatu bitartean egindako kartel, ohar, komunikazio... guztien ale bat (inprimatuta edo eskaneatuta).

- j) Ekitaldia gauzatzeko eta bide publikoa okupatzeko behar besteko baimenak eskatzea eta jardueraren garapenerako premien zerrenda zehatza aurkeztea.
- k) Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3. artikuluan xedatutakoa betetzea, diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoa Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legean kontratu txikirako zehaztutako zenbatekoak baino handiagoa denean.
- l) Osasun publikoa babesteko asmoz agintaritzaren eskudunak unean-unean onartzen dituen neurriak betetzea.
- m) Gizarte-erantzukizuneko aseguruia kontratatzea, kasuan kasuko jaietan edo jaialdietan hirugarrenek jasan ditzaketen kalte guztiak estaltzeko.
- n) Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistemaren Aldaketari buruzko 26/2015 Legean xedatutakoa betetzeko asmoz eta adingabeekin ohiko harremana duten lanbideak, ogibideak eta jarduerak garatzeko eta betearazteko eskakizun moduan, Kultura, Kirol eta Euskara Arloko dirulaguntzak jasotzen dituzten elkarte edo erakunde guztiei eskatuko zaie erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko, adingabeekin ohiko harremana duten eginkizunak garatzen dituzten langile guztiek sexu-izaerako delituengatik ziurtagiri negatiboa dutela egiaztatu dezaten.
- o) Kultura eta Kirol Arloarekin lan egitea eskatzen zaien kasuetan eta, horretarako, kulturaren arloari buruzko edonolako informazioa eskaintzea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak...).

12. ARTIKULUA.- JUSTIFIKAZIOA

Justifikazioak aurkezteko epea 2026ko urtarrilaren 31n amaituko da.

Justifikazioa Urduñako Udaleko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu beharko da (www.urduna.com / Izapideak).

Era berean, Administrazio Publikoetako Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4. artikuluan legearen arabera aurreikusitako gainerako lekuetan ere aurkeztu ahal izango da justifikazioa.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30. artikuluan xedatutakoaren arabera, diruz lagundutako jardueraren %100 justifikatu beharko da, eta ez bakarrik Urduñako Udalak emandako zenbatekoa.

Honako hauxe erantsi beharko da justifikazioan:

- Egindako programaren edo jardueraren memoria argigarria.
- Honako hauxe azaltzen duen memoria ekonomikoa:
Batetik, **lortutako diru-sarrerak**, diru-sarrera publiko edo pribatu guztiak barne, diruz lagundutako jarduerak egiteko erdietsitako kide-kuoten bidezko ekarpenak zein diren adierazita. Bertan, honako hauxe azalduko da: zenbatekoa; zer

erakunderena den diru-sarrera; administrazio publikoen nahiz erakunde pribatu edo publikoen dirulaguntzak; eta beste diru-sarrera batzuk.

Bestetik, jardueran **sorrarazitako gastuen zerrenda xehatua**, fakturen eta legezko gainerako ordainketa-agirien zerrenda barne, hartzekoduna eta agiria, zenbatekoa eta jaulkipen-data adierazita. **Faktura guztiek zenbakia eraman beharko dute, eta gastuaren helburu den jarduerarekin egon beharko dira lotuta. Hori aitatu ezean, faktura hori ez da kontuan hartuko.** (V. eranskina). Gastuei dagokienez, elkartearen izenean dauden fakturak aurkeztu beharko dira, eta ez dira partikular baten izenean jaulkitakoak onartuko. Fakturaren bidez egiaztatu ezin diren gastuak ez dira gastutzat hartuko, federazioko ziurtagiriak, aseguru-polizak eta legezko beste batzuk izan ezik. Honako hauexek ez dira baliozko agiriak izango: albaranak edo entrega-agiriak. Dendako tiketak (faktura erraztua), ordeak, baliozkoak izango dira, betiere, bertan IFZa eta BEZa agertzen badira.

Faktura guztiak ordainketaren frogagiriarekin batera aurkeztu beharko dira. Bestela, ez dira kontuan hartuko.

- Kartelak, argazkiak, bideoak... edo jarduerarekin lotutako beste edozein material grafiko.

Aurkeztutako egiaztagiri guztiek emandako dirulaguntzaren helburu den ekitaldi ekonomikoko data eduki beharko dute.

Justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo justifikazioa behar bestekoa ez bada, dirulaguntza itzuli beharko da, Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan aurreikusitako baldintzak kontuan hartuta.

Kultura eta Kirol Arloak egiaztatu egingo du erakundeak oinarri hauetan adierazitako konpromiso guzti-guztiak bete dituela. Horrez gain, egiaztatu egingo du amaieran betearazitako eta justifikatutako zenbatekoa bat datorrela erakunde onuradunak eskabidean bertan aurkeztutako aurrekontuarekin. Azkenean betearazitako zenbatekoa txikiagoa bada, hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko da. Nolanahi ere, behar bezala justifikatu ez diren zenbatekoak oso-osorik edo zati batez ere itzuli beharko dira, baita kasuan kasuko berandutza-interesak ere.

13. ARTIKULUA.- DIRULAGUNTZAREN ITZULKETA

Jasotako dirulaguntza eta dirulaguntza hori ordaintzen denetik itzultzea bidezkoa dela erabaki arte sortutako kasuan kasuko berandutza-interesak itzuli beharko dira, Dirulaguntzei buruzko 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan zehaztutako kasuren bat gertatzen denean eta oinarri hauetan edo Urduñako Udaleko Dirulaguntzak Emateko Oinarri Orokorrek arautzen dituen Ordenantzan adierazitako edozein betebeharrak betetzen ez denean.

Hain zuzen ere, justifikatzeko betebeharra betetzen ez bada edo justifikazioa behar bestekoa ez bada, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira derrigorrean, baita berandutza-interesak ere, indarreko legerian adierazitako baldintzetan. Era berean, horren ondorioz, ezinezkoa izango da ez-betearazpen horren osteko hurrengo bost urteetan edozein dirulaguntza eskatzea.

Edonola ere, oso-osorik edo zati batez itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko orduan, proportzionaltasunaren eta berdintasunaren printzipioak hartuko dira kontuan. Horretarako, kasu zehatz bakoitzeko inguruabarrak ere hartuko dira kontuan.

Itzulketa eskatzeko ebazpena dirulaguntza esleitu zuen organo berberak emango du.



Itzulketaren espedienteak Administrazio Publikoetako Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen IV. tituluan zehaztutako prozedura-arauak beteko ditu, eta, bertan, 15 laneguneko epeko entzunaldi-izapidea emango zaio interesdunari.

Halaber, honako hauexetan xedatutakoa ere hartuko da kontuan: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrari buruzko Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren III. zein IV. tituluak eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. titulua.

Diruz lagundutako jardueraren kostuaren araberako larregizko finantzaketa ere izango da dirulaguntza itzultzeko arrazoia.

14. ARTIKULUA.- ZEHAPENERAKO ARAUBIDEA

Arau-hausteen eta zehapenen araubidean, honako hauexetan xedatutakoa ezarriko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, lege horri buruzko Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Urdunako Udaleko Dirulaguntzak Emateko Oinarri Orokorrak arautzen dituen Ordenantza eta Euskadiko Administrazio Publikoen Zehapen Ahalari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea.

15. ARTIKULUA.- PUBLIZITATEA

Deialdia nahiz ebazpena BAO-n argitaratuko dira, eta deialdia DDBN-n erregistratuko da.

Era berean, deialdiari eta ebazpenari buruzko informazio guztia udalaren www.urduna.com webgunean egongo da eskuragarri.

16. ARTIKULUA.- ARAUDIA

Oinarri hauetan aurreikusi ez den guztian, honako hauexetan xedatutakoa ezarriko da: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, lege horri buruzko Araudia onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua eta Urdunako Udaleko Dirulaguntzak Emateko Oinarri Orokorrak arautzen dituen Ordenantza.

Kultura eta Kiroleko teknikaria